


SAGARRA

Sagardo ona lortzeko sagarraren zaporea kontutan hartu behar da.



Euskal Herriko fruitu erregea

Sagarra izan da Euskal Herrian fruitu denen artean erregeena, baita ugariena ere. Hala eta guztiz ere, urteetan zehar eduki izan duen garrantzia galtzen doa, beste fruitu askoren atzetik gelditzen ari delarik.

Nazio aurreratuetan sagarraren onura guztiak ondo dakizkitez. Ezagunak dituzte fruitu honen proteina aberatsak, mineral gatzak, gorputzarentzat mesedegarriak diren fosforo, kaltzio, magnesio, kobre eta burnigaiak.

Sagarrak bitamina mota asko du ere. Honetaz gain, zenbait zauri sendatzeko ahalmenak ezagunak dira. Aintzinean, fruitu hau erdibitu, barruko bihotza hustu eta bi zatiak lotu ondoren, su gainean erretzen zuten. Lortzen zuten pomada, sarnarentzat erremedio ona zen. Hau ez da bere propietate bakarra. Baditu beste gaitasun batzuk sendatzeko ahalmenak ere. Honela, tentsioa, erreuma, bihotzekoa eta gizentasunari aurre egiteko erabilia izan da.

Mota desberdinak

Beste alde batetik, sagarren artean, mota desberdinak aurki daitezke. Beraien sailkapena egitea ez da lan erraza, izen asko galdu eta beste batzuk nahastu direlako. Askotan sagar mentuek ekartzen ziren tokietako izena hartzen zuten. Horrela daude adibidez: Goarda Sagarra, Frantsez Sagarra, eta abar.

Euskal Herriko herrietako izenez deitutako sagarrak erraz aurki daitez-

ke: Andoain sagarra, Bizkaia sagarra, eta beste zenbait.

Deitura asko

Adieraz daiteke, izen arloan, gaur egungo ezjakintasuna haundia dela. Honela, sagar mota zehatz bat bederatzi deitura desberdinez izenda dezakete Euskal Herriko biztanleek.

Horrelako zerbait gertatzen da Errege Sagarra delakoarekin. Bizkaia aldean, Erreinetea esaten diote; Lapurdin, Anixa; Gipuzkoan, Errezil Sagarra eta Kanpandoja. Benetako Errege Sagarra Errezil familiako sagar horria, txikia eta txapala da.

Familia honetan, Errege sagarrak gain, beste klase desberdinak aurkitzen dira: Errege Gaxia, Udare Sagarra, Anixa, Errezil Gorria, Aragoi Errezila, Erreineteta Gorria eta abar.

Sagarraren kolorea eta itxura kontutan harturik, bost sagar mota ikus daitezke: Geza Mina, Geza Zuri, Gazi Haundi, Balantzategi, eta Alea Haundi.

Zapora aldetik, berriz, bederatzi gusto desberdinetako sagarrak daude sagastietan: Gozoak, Gaziak, Gezak, Garratzak, Gazi-gezak, Gazi-garratzak, Gozo-garratzak, Gazi-gozoak eta Geza-garratzak.

Nahiz eta esaera zaharrak esan «zenbat eta sagar mota gehiago nahastu, orduan eta sagardo hobe aterara», hau ez da egi osoa. Sagardo ona lortzeko, sagar izenari begiratzea baino hobe da berak duen zapora kontutan edukitzea.

Euskal Herriko herrietako izenez deitutako sagarrak erraz aurki daitezke

*Sagarraren margo eta itxura kontutan harturik, bost sagar mota ikus daitezke:
Geza Mina, Geza Zuri,
Gazi Haundia,
Balantzategi eta Alea Haundia*